

ARBIZUKO UDALA

ESKOLA IZANDAKOAREN ERABILERA ADOSTEKO PARTAIDETZA-PROZESUA

2021eko azaroa



Arbizuko
Udala





AURKIBIDEA

1	SARRERA.....	1
2	HELBURUAK.....	2
	2.1 Helburu nagusia	2
	2.2 Helburu zehatzak	2
	2.3 Zeharkako helburuak	2
3	PROZESUAREN DESKRIBAPENA.....	3
	3.1 Prozesuaren eskema	3
	3.2 Prozesua urratsez urrats.....	4
	3.2.1 Abiatzea	4
	3.2.2. Ideia eta proposamenen bilketa	4
	3.2.3. Eztabaida eta lehentasunak adostea	6
	3.2.4. Itxiera	7
	3.3 Komunikazioa	8
4	EMAITZA	9
5	ERANSKINAK.....	13

1 SARRERA

Arbizuko eskola zaharraren eraikina hutsik dago, eskola beste leku batera aldatu dutelako. Udalak hutsik geratu den espazio horrek aurrerantzean zer erabilera izango duen erabakitzeko hausnartu beharra identifikatu du, Arbizuarrei euren iritzia galdetzearekin batera. Horretarako herritarrak aktibatu eta subjektu aktibo izateko bitartekoak jarri nahi izan ditu, herrigintzan eta demokrazian sakontzen jarraitzeko.

Testuinguru honetan, 2021eko udazkenean, Arbizuko hainbat eragile eta norbanakoren parte hartzeaz eskola zaharraren etorkizunaz hausnartzeko prozesua eraman dugu aurrera.

2 HELBURUAK

2.1 Helburu nagusia

- Arbizuko eskola izandako eraikinaren erabilera herritarren beharrak eta iritziak kontuan hartuta modu komunitarioan erabakitzea.

2.2 Helburu zehatzak


- Herritarren eskutik herriak dituen espazio beharrak jasotzea.
- Behar horien zergatiak eta arrazoiak aurkeztu eta eztabaidatzea.
- Denen artean aukera desberdinak lehenesteko ariketa egitea.

2.3 Zeharkako helburuak

- Herritarren artean parte hartzeko kultura sustatzea.
- Arbizuko herritarrak subjektu aktibo izatea. Herritar proaktiboak, parte-hartzaileak eta erantzunkideak izatea, beraien errealitatearen eraldatzaile aktibo izatea ahalbidetzea.
- Herri-nortasuna sendotzea, herritarren arteko elkarlana sustatuz.
- Herritarren bizi-kalitatea hobetzea eta Arbizurekiko lotura handitzea.

3 PROZESUAREN DESKRIBAPENA

3.1 Prozesuaren eskema



3.2 Prozesua urratsez urrats

Aurreikusi eta jasotako eskemari jarraituz lan egin dugu eta garatu dugu prozesua.

3.2.1 Abiatzea

Hasteko eta behin, Arbizuko Udaleko udal-ordezkariekin eta herritar batekin eskola zaharraren etorkizunaz hausnartzeko prozesua onartu, komunikazio-plana landu, kronograma zehaztu eta partaidetza-prozesurako baldintzak adostu genituen.

Talde eragilea

Osaerari dagokionez, honako hauek osatu dugu:

IZEN-ABIZENAK	ARDURA
Aitziber Arbizu	Arbizuko Udaleko zinegotzia
Maitane Intxaurreaga	Arbizuko Udaleko zinegotzia
Katrin Ginea	Herritarra
Idurre Zugazagasti	Elhuyar
Amaia Zarrabeitia	Elhuyar (lehenengo bileran)

Guztira, lau bilera egin ditugu eta taldearen egitekoa eskola zaharraren etorkizunaz hausnartzeko partaidetza-prozesua gidatzea eta koordinatzea izan da, beharrezko informazioa eta baliabideak denon eskura jarritz.

3.2.2. Ideia eta proposamenen bilketa

Behin proposamena adostuta eta partaidetza-prozesuaren baldintzak adostuta, hurrengo urratsa eskola zaharraren erabileraren inguruko ideia eta proposamenen bilketa egitea izan da.

Horretarako, bi ekintza egin ditugu:

Ate irekiak

Irailaren 17 eta 18an, ostirala eta larunbata hurrenez hurren, eskolako ateak zabaldu genituen. Bertan, Aitziber Arbizu eta Maitane Intxaurreaga udal zinegotziek partaidetza-prozesuaren berri eman zuten eta bertaratuek eraikina ezagutzeko aukera izan zuten.

Galdetegia


Ondoren, Arbizuarren behar, nahi eta proposamenak jasotzeko galdetegia zabaldu dugu, eskuz zein on-line erantzuteko aukera eskaini dugularik. Era berean, eta ahalik eta herritar gehienek parte hartu ahal izan dezaten galdetegia euskaraz, gazteleraz eta arabieraz zabaldu dugu.

GALDETEGIAK


Guztira, 74 erantzun jaso ditugu.¹

- Erantzun dutenen % 66 emakumeak izan dira (48 emakume), % 34 gizonak (25 gizon) eta gainerakoak (pertsone 1) ez du erantzun.
- Adin-tarteari dagokionez, % 35 46-64 urte bitartekoak izan dira, % 28 30-45 urte artekoak, % 22 65 urte baino gehiagokoak eta % 15 16 eta 29 urte bitartekoak.
- Erantzuten dutenen % 94,6k euskaraz egin du eta gainerako % 5,4k gaztelaniaz.

Generoaren arabera






Adinaren arabera








¹ Lagina estatistikaren aldetik adierazgarria ez izan arren, irudi orokorra eta errealitatearen zati bat islatzen duela esan daiteke.

3.2.3. Eztabaida eta lehentasunak adostea

Behin Arbizuko herritarren proposamenak jasota, Talde Eragilean hauen bideragarritasuna aztertu dugu, hasieratik ezarritako hiru baldintzen baitan:

	ERABILERA PUBLIKOA IZATEA Adin, jatorri, behar, nahi... ezberdinak dituzten Arbizuarrek erabiltzeko aukera izatea.
	ERABILERA ANITZA AHALBIDETZEA Erabilera anitzeko espazioa izatea, bertan gauzatuko diren ekintzek elkar ez oztopatzea.
	EKONOMIKOKI BIDERAGARRIA IZATEA Eskola zaharra ekonomikoki jasagarria izatea eta Astigarragako Udalarentzat, bai exekuzioan eta baita ondorengo erabilera eta mantentzean ere.

Era berean, eta herri-batzarrari begira proposamenak aukeratu eta lehenesteko garaian hainbat irizpide kontutan hartzea adostu dugu, hala nola:

	ONURADUN KOPURUA Ahalik eta pertsona gehienentzat erabilgarria izatea.
	GENERO BERDINTASUNA Jendarte eredu justuago eta parekideago baten alde egitea, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren bidean eragin positiboa izatea.
	ANIZTASUNA Ezberdinen arteko onarpena kultura, genero, hizkuntza, sexualitate, gaitasun... dagokionez.
	BELAUNALDI ARTEKOA IZATEA Belaunaldi ezberdinetako herritarrak erabiltzeko aukera izatea eta beren arteko baliabide eta ikaskuntzak elkarren artean trukatzeko eremua izatea.
	JASANGARRITASUNA Ingurumenarekiko errespetua eta konpromisoa izatea.

Herri batzarra

Testuinguru honetan, urriaren 23an, larunbata, Herri-batzarra egin dugu, non, galdetegietatik ateratako proposamenak esku artean eta ezarritako baldintza eta irizpideetan oinarrituta Arbizuko eskola zaharrerako erabilera proposamenak landu eta adostu ditugun.

HERRI BATZARRA

Guztira, 17 lagun bertaratu dira

- Bertaratuen % 58,82 gizonezkoak izan dira (10 gizon), % 41,17 emakumezkoak (7 emakume).
- Horietatik %35,29 (6 pertsona) udal-zinegotziak.



3.2.4. Itxiera

Prozesuari itxiera emateko azken talde eragilearen bilera egin dugu. Bertan eskola zaharraren erabilera adosteko partaidetza-prozesuaren balorazioa egin dugu.

Arbizun horrelako partaidetza-prozesu bat egiten den lehen aldia izanik, balorazio positiboa egin dugu, izan ere honelako prozesuek herritarrek parte hartze kulturara hurbildu eta erantzunkidetasunean irabazten baita.

3.3 Komunikazioa

Talde Eragilearen lehenengo bileran komunikazio-plana landu dugu eta bertan jasotakoa jarraituz egin dugu partaidetza-prozesuaren komunikazioa.

Arbizuko Udalak partaidetza-prozesuetarako irudi propioa du, hortaz, oraingo honetan ere landu beharreko komunikazio-euskarrietan txertatuko da, Arbizuko Udalaren armarriarekin batera.



Kanpo-komunikazioari dagokionez, Arbizuarrengana iristeko ohikoak diren bi bideak erabili dira: batetik, etxez etxeko informazio-bidalketa; eta, bestetik, WhatsApp taldea, non 300 lagunetik gorak jasotzen duten astero Arbizuko Udalaren berri. Bide horiek baliatu dira ate irekietarako deia egiteko, galdetegia zabaltzeko eta herri batzarrerako deialdia bidaltzeko.

Oro har, Arbizuko Udalak euskaraz zabaltzen ditu komunikazio kontuak, baina partaidetza prozesuari dagokionez eta herriko jatorri aniztasunari begira, komunikazio-orriak arabierara eta gaztelerara itzultzea erabaki dugu.

Arbizuko Udaleko [Twitter](#) kontuan partehartze prozesuaren berri eman da, baita [Guaixe](#) Sakanako aldizkarian eta Beleixe irratian ere.

Eta, nola ez, eskola zaharraren etorkizunaz egindako hausnarketaren emaitza eta herri-galdeketa inguruko xehetasunak ere publiko egin ditugu.

4 EMAITZA

Aurrez adierazi bezala, partaidetza-prozesua Arbizuarrek eskola zaharrerako dituzten proposamenak jasotzearekin hasi dugu, ondoren eta Talde Eragilean, hauen bideragarritasuna aztertu dugu ezarritako hiru baldintzen arabera.

Honela, lehenengo galbahea pasa ondorengo emaitza izan da Herri Batzarrean aintzat hartutakoa:

PROPOSAMENAK	Jasotako proposamen kopurua	BALDINTZAK			IRIZPIDEAK					
		Erabilera publikoa	Erabilera anitza	Ekonomikoki bideragarria	Onuradun kopurua	Genero berdintasuna	Aniztasuna	Belaunaldi-artekotasuna	Jasangarritasuna	
Alokairu sozialeko etxebizitzak ²	2	?	EZ	EZ						
Aretoa	2									
Emakumeen etxea	1									
Erabilera anitzeko espazioa	30									
Etorkinen harrera etxea	1									
Haur eta gazteentzako espazioa ³	1									Haur eta gazteentzako espazioak badaude
Ikastola ²	2		EZ							
Informazio-bulegoa ²	2			EZ						
Jolas-gela ³	1									Gaur egun badago
Jolasteko eta egoteko espazioa ³	4									Gaur egun badago
Jubilatuen etxea ³	10									Gaur egun badago
King Boxinga eta arte martzialak ²⁺³	6		EZ							Gaur egun badute honetarako lekua
Kirol jardueretarako espazioa ³	1									Kiroldegia dago
Kultur-gunea	8									
Museoa ²	2		?	EZ						Ez da udal-eskumena
Rokodromoa	3									
Udal musika eskola ²	1		?	EZ						

² Baldintzetako bat edo gehiago ez du betetzen.

³ Gaur egun badago proposamen honetara bideratutako espazio edo eraikina

Proposamenen taula eta eskolaren planoak esku artean, herri batzarrera bertaratutako artean adostasuna dagoela ikusi da, eskola zaharrean erabilera anitzeko kultur-espazio bat kokatzeko proposamena gailenduaz.

Jarraian, bai espazioaren antolaketaren inguruan eta baita edukien inguruan partekatutakoak:



Lantaldeetako emaitzak bateratuta honakoa da proposamena:

Gela 1 [gaur egun bulegoa]

- **Erabilera:** Egongela edota bilera gela
- **Beharrezko altzariak edota materiala:** mahai eta aulkiak, eta harraska.
- **Aurreikusitako espazio eraldaketa:** bere horretan uztea.

Gela 2 [gaur egun sukalde txikia]

- **Erabilera:** tailer eta ikastaroetarako gela.
- **Beharrezko altzariak edota materiala:** mahai eta silak, eta harraska.

- **Aurreikusitako espazio eraldaketa:** gaur egun dagoen hormen banaketa errespetatu daiteke edo baloratu ea banaketa korredera bat jarriko ote den.

Gela 3 [gaur egun elkar konektatutako 2 gela handi]

- **Erabilera:** erabilera anitzeko areto handia. Tailer eta ikastaroak, hitzaldiak, proiektzioak, zinea, kontzertuak, herri-batzarrak, erakusketak...
- **Beharrezko altzariak edota materiala:** mahaiak eta silak, proiektorea eta pantaila.
- **Aurreikusitako espazio eraldaketa:** gaur egun dagoen horma botatzea proposatu da. Tartean baloratu daiteke banatzeko horma korredera bat jartzea, une berean erabilera gehiago barne hartu ahal izateko.

Gela 4 [gaur egun komuna]

- **Erabilera:** Komuna
- **Beharrezko altzariak edota materiala:** erabiltzaileei egokitutako altzariak
- **Aurreikusitako espazio eraldaketa:** bere horretan uztea.

Gela 5 [gaur egun komuna]

- **Erabilera:** Komuna edo bilera gela
- **Beharrezko altzariak edota materiala:** erabilerari eta erabiltzaileei egokitutako altzariak
- **Aurreikusitako espazio eraldaketa:** bere horretan uztea.

Hortaz, eta adostasun osoz, eskola eraikina erabilera anitzeko kultur-espazio bat izatea erabakitzen da. Espazioaren banaketari dagokionez, proposamen desberdinak jaso dira, eraikuntza-lanen proiektua garatzerakoan kontuan hartuko direnak.

5 ERANSKINAK

Eranskin gisa partaidetza-prozesuan zehar sortutako dokumentazioa jaso dugu:

- I. Talde eragileko bileretako aktak
- II. Galdetegietako emaitzak
- III. Herri batzarreko akta
- IV. Komunikazio-edukiak